



Plisti-plasta, un cuento en el baño

Aprende euskera con tus hijos y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/plisti-plasta>

Bazen behin **ile kizkurdun** mutiko bat. Bere izena Aitor zen eta Aitorri ez zitzaion batere gustatzen bainua hartzea.

—Oso ondo pasatu dut gaur parkean jolasten! —esan zion Aitorrek amari.

—Bai, **zabu** guztietan montatu zarete! Bihar gehiago. Orain badakizu zer tokatzen den, ezta?

—Ezzz..... amatxo!! Mesedez!! Atzo hartu nuen bainua. Gaur ez dut behar.

—Laztana, asko zikindu zara. **Kurrin-kurrin** eta guzti egin ahal izango zenuke!

Érase una vez un niño con el **pelo rizado**. Se llamaba Aitor y no le gustaba nada bañarse.

—¡Hoy lo he pasado muy bien jugando en el parque! —le dijo Aitor a su ama.

—Sí, ¡os habéis montado en todos los **columpios**! Mañana, más.

Ahora ya sabes lo que toca, ¿no?

—Nooooo, ¡¡jama!! Por favor, me bañé ayer. Hoy no me hace falta.

—Cariño, te has ensuciado mucho. ¡Podrías gruñir como un cerdito, incluso!

Eta Aitor haserretu egin zen.

—Pitxin, **betondorik ez jarri** eta goazen etxera!

Etxean Aitor sartu zen bere logelara eta atea itxi zuen. Amak sukaldetik oihu egin zion:

—Aitor, **kendu arropa!**Aitorrek ez zion kasurik egin eta liburu bat irakurtzen hasi zen.

Y Aitor se enfadó.

—Corazón, **no me frunzas el ceño** y vamos a casa.

Aitor entró en casa, se metió en su cuarto y cerró la puerta. Su ama desde la cocina le gritó:

—Aitor, **¡quítate la ropa!**

Y Aitor no le hizo caso y empezó a leer un libro.

Amak **errieta egin** zion eta azkenean komunera sartu ziren elkarrekin.

Aitorrek disimulatzen jarraitu eta **hortzetako eskuila** hartu zuen.

Amak **goitik behera** begiratu zion eta buruarekin agindu zion bainuontzian sartzeko.

Aitor eseri zen bainuontzi barruan eta amak **xaboi-burbuilak** egin zituen.

—Ama, baina ilea ez garbitu mesedez. Gero orrazteak mina egiten didalako!

—Gauza bat egingo dugu, Aitor. Gaur ipuin bat kontatuko dizut. **Adi egon** eta entzun.

Su ama le **riño** y al final entraron juntos al baño.

Aitor siguió disimulando y cogió el **cepillo de dientes**.



Su ama le miró de **arriba abajo** y le dijo con la cabeza que se metiera en la **bañera**. Aitor se sentó dentro del baño y su ama hizo una **burbujas de jabón**.

—Ama, pero no me laves el pelo. ¡Luego al peinar me haces daño!

—Vamos a hacer una cosa, Aitor. Hoy te voy a contar un cuento. **Estate atento** y escucha.

Landareak eta animaliak mintzo ziren garaian, bazen igel bat.

Igel horrek, zuk bezalaxe, ura gorrotatzen zuen. Egun osoa **urmael** baten ondoan pasatzen zuen baina ez zen uretan sartzen.

Bere lagun guztiek igeri egiten zuten eta urarekin garbitzen ziren. Oso pozik bizi **ziren plisti-plasta** egiten!

Egunak joan, egunak etorri, gure igelak bakarrik jaten zuen eta kirolak egiten ez zuenez, loditzen hasi zen. Besteek esan zioten bainatu eta igeri egin behar zuela pisu gehiagorik ez hartzeko.

Baina berak esan zien:

—**Niri bost axola!** Ura ez zait batere gustatzen.

Érase una vez que se era una rana.

*Esta rana, como te pasa a ti, odiaba el agua. Se pasaba el día al lado de la **charca**, pero nunca se metía en el agua.*

*Todos sus amigos nadaban y se limpiaban con el agua. ¡Se lo pasaban genial **chapoteando!***

***Pasaron los días** y nuestra rana solo comía, y como no hacía nada de deporte, empezó a engordar. Las demás le dijeron que se bañara, que tenía que nadar para no coger más peso.*

Pero ella les contestó:

—**Me da igual.** No me gusta el agua

Denbora pasatu zen eta igelaren azalean **garatxoak** eta **orbanak** agertu ziren. Bere lagunek berriro esan zioten bainatu behar zela. Urarekin bere azala sendotu ahal izango baitzen.

Baina igela oso **burugogorra** zen eta gauza bera erantzun zuen:

—Berdin dit nola dagoen nire **azala**. Ez dut bainurik hartuko.

*Pasó el tiempo, y a la rana le salieron **verrugas** y **manchas** en la piel. Los amigos le volvieron a decir que se tenía que bañar, porque con el agua se curaría su piel.*

*Pero la rana era muy **cabezota** y les contestó lo mismo.*

—**Me da igual cómo esté mi piel.** No me voy a bañar.

Hala ere, lagunek esandakoak **kezkatu** egin zuen eta hurrengo goizean urmaelera hurbildu zen eta bere gorputza eta aurpegiaren **isla** uretan ikusi zuenenean...

—Baina.. nola da posible? Oso lodi nago eta nire azala... **apoa** ematen dut!

Eta jarraian, uretara sartu zen. **DZANGA!**



Egun horretatik aurrera, igela egunero bainatzen zen eta lagunekin uretan primeran pasatzen zuen.

Sin embargo, lo que le habían dicho los amigos le **preocupó** y por eso al día siguiente se acercó a la charca y cuando vio **reflejado** en el agua su cuerpo y cara...
—Pero, ¿cómo es posible? Estoy muy gorda y mi piel.. ¡parezco un **sapo**!
Y seguido, se metió al agua.
Desde aquel día, la rana empezó a bañarse todos los días y lo pasaba genial en el agua.

Aitorrek ez zuen ezer esan eta pentsatzen geratu zen. Azkenean, esponja hartu eta oinak **igurtzeari** ekin zion.

—Ama, xanpua botako didazu?

—Noski, maitia.

Aitorrek ipuina entzun eta gero konturatu zen bainua hartu behar zuela. Gainera, bainatzea ez zen plan hain txarra... xaboi burbuilekin ere jolastu ahal zelako.

Eskuohiala hartu, komunetik irten eta bere logelan jantzi zen.

Aitor no dijo nada y se quedó pensando. Al final, cogió la esponja y empezó a Aitor no dijo nada y se quedó pensando. Al final, cogió la esponja y empezó a **frotarse** los pies.
—Ama, ¿me echas jabón?
—Claro, cariño.

Aitor escuchó el cuento y se dio cuenta de que tenía que bañarse. Además, bañarse tampoco era tan mal plan... ¡porque también se puede jugar con las burbujas de jabón!
Cogió la **toalla**, salió del baño y se vistió en su cuarto.

Amak ikustean barre egin zuen:

—Aitor, pijama **atzekoz aurrera** jantzi duzu! Eta **oinutsik** zaude!

—Ui, egia da. Ama, ez dizut berriro esango ez dudala bainua hartu nahi... Bihar nahi baduzu, eskolan ikasi dudakanta bat egin ahal dugu. “Riki riki” du izena.

—Irakatsiko didazu, bihotza?

—Bai!! Oso erraza da

Su ama cuando le vio, rió:

—Aitor, ¡te has puesto el pijama **del revés**! ¡Y estás **descalzo**!

—¡Uy!, es verdad. Ama, no te voy a volver a decir que no me quiero bañar. Mañana si quieres podemos cantar la canción que he aprendido en clase, se titula “Riki, riki”

—¿Me la enseñarás, corazón?

—¡Sí! ¡Es muy fácil!



Xalala! Riki riki!
Xalala! Riki! ri!
dutxan **dardaraka**
ur hotzarekin.

Hartu esponja ta xaboitu
burua busti
igurtziz garbitu
txilbor eta titi

Jira bira ipurdia
mugitu beti
bi oinetan bukaera
ez dago gaizki.

Xalala! Riki riki!
Xalala! Riki! ri!
Temblando en la ducha
Con el agua helada

Coge la esponja y enjabona
moja la cabeza
limpia frotando
el ombligo y las tetillas

Gira el culete
moviéndote siempre
para terminar en los piez
no está mal